



# Beldartxo lagunkina

*2015eko azaroan eta abenduan proposatua izan zen animazioan landu hiru albumetarik bat da.*

## **Animazioaren helburuak:**

Album bakoitzarentzat **irakurketa zehatz** bat egitea eta dagokion **baliabide pedagogikoak** antolatzea:

- azpildurak dituen testu baten ulermena errazteko,
- euskarazko adierazpidea laguntzeko,
- helburu gisa hautatu hiztegia eta egiturak barneratzeko,
- akulturazioari bidea emateko.

## **Animazioaren xedeak:**

Nola lant programak literaturaren bidez?

Nola haurrei literatura **ulertaraz, bizi-araz ... bigarren hizkuntza** dutenean?



## Albuma klasean landu aitzin, irakurketa aditu bat egitea, taula osatuz

Zer da irakurketa aditua?

- denen artean egiten den irakurketa,
- obra artoski irakurtzea,
- denen irakurketei esker, nork berak obra gero ta hobeki ulertzea.

Urraspide horri esker eta irakurketa anitz egin ondoan, norbera ohartzen da irakurle aditu bat bilakatzen ahal dela.

Ikus: *Irakurketa aditua - Beldartxo lagunkina*

# Gertakariz gertakariko kontakizuna

Frantsesez: *récit en randonnée*. Antzinako frantsesezko *random* hitzetik dator eta *menturazkoa* erran nahi du (ingelesez, *random* erabiltzen da)

- Gertakariz gertakariko ibilaldi batean, ustekabeko topaketak gertatzen dira: pertsonaia baten edo askoren mugimenduak, eremu geografiko mugatuan.
- Errepikatzen den testu-egitura du. Testu bakoitzean:
  - bada sarrera bat,
  - paragrafo bat ordena bera duten erranaldi sekuentzia batekin,
  - konponbidea duen egoerarekin bukatzen da.
- Elementu iraunkor eta luzeak dituzten testuak dira (idazle batetik bestera aldatzen dira).
- Errepikatzen diren egiturek hiztegi aldaketa sortzen dute. Memorizazioa eta antizipazioa lant daitezke... berdin inprobisaketa ere.
- Erritmoa, testu orekatu baten plazera, melodia eta eraginkortasuna. Hiztegi-lehiaketa baten gisakoa.

# ***Beldartxo lagunkina albumaren inguruan***

## **GARAPEN PEDAGOGIKOA**

### **HELBURUAK:**

- Albumaren ulermenetik ekoizpenera pasatzea.
- Albumetik abiatuz hizkuntzaren lantzea: komunikazio-egoerak pentsatuz/ hiztegia eta egiturak hautatuz edota sinplifikatuz eta finkatuz (Ikus : [Beldartxo lagunkina - Hizkuntza landu](#))
- Ekoizpenetik ulermenera pasatzea.

*Oharra: taldearen arabera, egin diren proposamen desberdinak (denak edo batzuk) segidan egiten ahal dira edo ez.*

► Lehen bi orrialdeetatik abiatuz istorioaren hipotesiak adieraztea.

Zer ikusten duzue?

Zer gertatzen ahal da istorio horretan?

Afixa batean proposamenak idatziko dira.



► Haurrek liburua hostokatzen dute... Osorik edo lehen partea (beldarra bakarrik den artean).

Deskripzioa.







Zerbait berri jakiten ahal dea albumari begiratzuz?

Hastapenean idatziak izan diren hipotesiak ezeztatzen ahalko dira (afixan marratuz) ondotik liburuan agertzen diren xehetasunei esker.


Ohar berriak gehitzen ahal dira afixan.

► **Beldartxoaren sentimenduak asmaraztea eta pertsonaiak mintzaraztea:**

Ikus: Beldartxo lagunkina - Beldartxoaren pentsaketak



**Hizkuntza-egoerak:** pertsonaien pentsaketak eta erranak lantzea



► **Pertsonaiek erraten dutena asma ezazue:**

**Helburuak:**

- Beldarraren nahia eta beste animalien «ez» sistematikoa.
- « *Nehork ez du harekin jostatu nahi* » erranaldiaren ulertzea eta ondorioztatzea.

Testua irakurtzean hastapeneko hipotesiak egiaztatzen ahalko dira.

Ikus:

Beldartxo lagunkina - Solasaldiak  
Beldartxo lagunkina - Erantzunak

Nehork ez du harekin jostatu nahi.




► **Maketa euskarri gisa; elkarrizketa antzeztuak:**

«Nahi duzu enekin jostatu? Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz!» (1.maila)

«Nahi duzu enekin jostatu? Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, itsusia zara!» (2. maila)

«Nahi duzu enekin jostatu? Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, itsusiegi zara!»  
(3. maila)

«Nahi duzu enekin jostatu? Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, itsusiegi baitzira!»  
(4.maila)



**Beldartxo**

Haurrekin eraikitzen  
ahal den maketa.

▶ **Pertsonaien arteko elkarrizketak gehitzen ahal dira.**

▶ Klaseko biziari lotuak diren egoera berriak asmatzen ahal dira.

Adibidez: eguneroko egoeretatik abiatuz, pertsonaia berri bat asmatuko da, eta hurrek antzeztuko dute ber egitura erabiliz (rol-jokoa).

*"Nahi duzu enekin jostatu? Segur ezetz! / Segur ezetz, lodia zara / Segur ezetz, lodiegia zara / Segur ezetz, lodiegia baitzara!"*

▶ **Motrizitate-gelan ibilbideen antolatzea, segitzea:**

Espazioaren hiztegia:

- Pentze batean.
- Arroltze batetik.
- Belar luze **artean**.
- "Orduan, beldartxoak bere bidea segitzen du belarren **artetik** eta **urrunago** doa."

► **Handienak idatzira pasa daitezke; albumaren lehen partea handiz afixatzen ahalko da. Ahozkoan, elkarrizketa bat intonazioaren bidez marka daiteke, idatzian berriz, puntuazioaren eta aditz berezien bidez markatzen da. Testu batetik bestera ikasleek berriz atzemanen dituzte.**

*«Nor bait mintzo ote da ipuin horretan? Non hasten dira elkarrizketak? Elkarrizketa-markak, erranaldi bukaerak... Pertsonaia batek galdera bat pausatzen baldin badu, zer idazten dugu?»*

“Nahi duzuia enekin jostatu? ”

“Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, luzeegi zara! ”

“Nahi duzuia enekin jostatu? ”

“Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, ilunegi zara ! ”

“Nahi duzuia enekin jostatu? ”

“Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, itsusiegi zara! ”

Haurrekin istorioari zentzua emateko testu-markak eraiki behar dira.

► **Liburua esku artean dutelarik haurrei proposatzen ahal zaie erranaldi batzuk elkarri lotzea, adibidez:**

Ikus: Beldartxo lagunkina – Lotuak

“Nahi duzuia enekin jostatu?”

“Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, itsusiegi zara!”

“Nahi duzuia enekin jostatu?”

“Nahi duzuia enekin jostatu?”

”Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, luzeegi zara!”

“Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, ilunegi zara!”

Hizkuntza egoerak: Lotura kausalak

# Kausalitate loturak

Lagun bat atzemanen dut. Ni bezalakoa izanen da. Kontent naiz.



Ez naiz ederra. Itsusia naiz. Nehork ez nau maite.



► Kausalitate-loturak azpimarratzen dituen bukaerako afixatzea horrelakoa izan daiteke:

Nehork ez du harekin jostatu nahi.

Negarrez ari da.

Nehork ez duelako harekin jostatu nahi. Bakarrik delako.

## Denboraren egituratzea, kronologiaren lantzea

► Hurrek irudiak mozten ahal dituzte eta ordenan eman. Beldarraren eta lorearen garapenak parez pare ezarriko dituzte. Beldarra krisalida den artean lorea pixkanaka handitzen ari da. Krisalidaren irudia errepikatzen da iraupenaren azpimarratzeko

► Irudiak eskukatu ondoan, ordenan emanen dituzte. Irakasleak material horren inguruan hizkuntza egoerak proposatzen ahal ditu. Ikus: Beldartxo lagunkina - Kronologia eta Beldartxo lagunkina - Kronologia.pdf



## **Istoriaren segida:**

Pinpirinaren bizi berria... Zoriontsua... Lagun bat atzeman du...

*“Hela! Badea norbait hemen? Ez egon barnean! Atera zaitez!  
Udaberria da, egun eguzkitsua dugu!”*, dio liliak oihuka.

## **Loreak gonbidaturik, beldarra bere kuskutik ateratzera ausartzen da.**

Irakasleak gelan eztabaida bat sorraraziko du: baztertua den norbait denen ardura bilakatu behar litzateke (*elkarrekin bizitzen ikastea*)

Adibidez: eguneroko egoeretatik abiatuz, pertsonaia berri bat asmatuko da, eta hurrek antzeztuko dute ber egitura erabiliz (rol-jokoa).

*"Nahi duzu enekin jostatu? Segur ezetz! / Segur ezetz, lodia zara / Segur ezetz, lodiogia zara / Segur ezetz, lodiogia baitzira!"*

*"Egun on! Nahi duzua enekin jostatu?"*

*"Bai, gogotik! / Bai gogotik eta plazerekin! / Bai gogotik! Plazer egiten didazu. / Bai gogotik! Plazer handia egiten didazu."*

## ► **Beldar-hazkuntza bat egitea**

- Argazkiak hartuko dira.
- Erhiz margotuz behaketa-marrak bat eginen da.

Hazkuntzaren argazkiak aterako dira, behaketa-marrak eta albumeko irudiak parekatuz.

Haurren irudikapenen (gero eta abstraktuagoak bilakatzen dira) eta errealitatearen artean loturak egitea da helburua.

**Beldarra eta pinpirinaren inguruko proiektu baten muntatzeko dokumentu franko atzeman daitezke IKASen mediatekan.**

- Ikus: Beldarrak eta pinpirinak - Bibliografia bat





## Lotu dokumentuak:

- Irakurketa aditua - Taula orokorra
- Irakurketa aditua - Beldartxo lagunkina
- Beldartxo lagunkina - Hizkuntza landu
- Beldartxo lagunkina - Beldartxoaren pentsaketak
- Beldartxo lagunkina - Solasaldiak
- Beldartxo lagunkina - Erantzunak
- Beldartxo lagunkina - Lotuak
- Beldartxo lagunkina - Kronologia
- Beldartxo lagunkina - Kronologia.pdf
- Beldarrak eta pinpirinak - Bibliografia bat